



JULIANA
LÉVEILLÉ-TRUDEL
Itzultzailea: AIORA JAKA

ELEBERRIA

ISBN: **978-84-18252-44-0**
ORRIALDEAK: **216**
FORMATUA: **12 x 19**
PREZIOA: **17,90 €**

“Edertasun honek sabelean emandako ukabilkada bat dirudi. Tundran baizik ez da gertatzen.”

**Pantagruel
saria
2018**

NIRLIIT

Juliana Léveillé-Trudel

Itzulpena: Aiora Jaka Irizar

Quebec hegoaldeko neska batek, antzaren gisan, iparraldeko Salluit herrixka inuitera bidaiatzen du urtero, beste zuri askok bezala uda sasoian lan egitera, eta han ikusi eta bizitakoak aipatzen dizkio Evari, desagertu berri den lagun inuitari. Narratzaileak nonahi sentitzen du Evaren espiritua, haren gorpua zilar koloreko fiordoaren hondoa egon arren, eta hari kontatzen dio zertan den hark utzitako lurraldea, zertan diren herrikideak, zertan hain ongi ezagutzen duen iparraldeko bizimodu latza: bortizkeria, asimilazio kulturala, mendekotasuna, arrazakeria, baina baita jendearen abegikortasuna, arbasoen kultura bizia eta natura salbaia ere. Nunavik, Quebecoko inuiten lurraldea, «sabelean emandako ukabilkada bat» bezain ederra da, eta halakoxeak dira tundra azkengabe horretan habia aurkitzen duten maitasun eta laguntasun istorio hunkigarriak ere.



Juliana Léveillé-Trudel

(Montreal, 1985)
Kultur ikasketak egin zituen Quebecoko Unibertsitatean, Montreal hirian, eta Quebec iparraldeko Nunavik eskualdean hezitzaile jardun du. Dramaturgia lanak egiten ditu eta Théâtre de Brousse izenekoak sortu zuen. Gaur egun, bigarren eleberria idazten ari da, baita helduentzako hirugarren antzezlan eta haurrentzako antzezlan bat ere. *Nirliit* du lehen eleberria (2015), hainbat hizkuntzatarara itzuli dute eta oihartzun handia lortu du.

Liburuaz esan dute:

«Eleberri inpresionista, hunkigarria, poetikoa eta sumindua. Zalantzarik gabe, irakurtzekoa».

Anne-Josée Cameron
Radio Canada

«Gaia gogorra da, baina beharrezkoa, eta estilo ikaragarri ederrean idatzia dago. Eleberri ahaztezin bat».

Morgane La Marchand
Librairies Fontaine

«Komunitate autoktonoen errepresentazio kulturalen garapenean urrats bat egin berri da. Mito eta estereotipo itsugarriez biluztu da, ikuspegi intimista eta hiperrealistaren mesedetan, eta elkarren ber-ezagutzari dei egiten dio. Egiatzko hurbiltze bat, parekoen artean».

Marie-Frédérique Desbiens
Le Devoir

